txintxarri

2021-12-03 OSTIRALA / 1567. ZENBAKIA
LASARTE-ORIA WWW.TXINTXARRI.EUS TOKIKOM

TXINTXARRI

Familia eta lagunekin batera

Jalgune elkarteak 30 urte bete ditu eta gogotik ari da ospatzen: jaialdi koloretsu eta berezia oparitu die herritarrei / 6-7

Jasotako guztia eskertu dute

Lasarte-Oriako Bizikidetza Foroak ekitaldi xume eta hunkigarri batekin itxi du 'Bizikidetzako memoria' erakusketa / 4

Lasarte-Oria eta Usurbil batzen duen bidegorria inauguratu dute Txikierdi 2 eremuan / 2

Kontsumo bonuen kanpaina martxan jarri du udalak, bigarrengoz herriko merkataritza sustatzeko / 3

Aterpea elkarteak Eguberrietako kanpaina aurkeztu du: zozketak eta erakusleihoen lehiaketa egingo ditu / 5

'Kuikui' aurkeztu dute Jalgi kafe antzokian, Pirritx, Porrotx eta Marimots pailazoen egitasmo berria / 8

I. Infantil mailako taldeek lehen faseko joaneko itzuliari amaiera eman zioten gol ugarirekin / 10

Intzako Nagusien 3. Mailako bikoteak Gipuzkoako txapelketako finalerdia jokatuko du / 11

2MÓ
229€
progresibo erreflexuen aurkako lenteekin

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

multiópticas
50 urte zuen ikusmena zaintzen

www.multiopticas.com

Lasarte-Oriako bidegorri sarea handitzen ari da

Urbil merkataritza gunea eta Txikierdi batzen dituen bidegorria inauguratu dute. Txikierdi 2 proiektuak 386.785,17 euroko kostua izan du. Lasarte-Oriako eta Usurbilgo herritarrek aspalditik egindako eskaerari erantzuten dio bide berriak

Txintxarri

Lasarte-Oriako bidegorri sareak Donostiarekin eta Usurbilekin lotura berria du. Azaroaren 19an, Gipuzkoako Foru Aldundiko, Lasarte-Oriako eta Usurbilgo udaletako ordezkariek Txikierdi 2 eremua inauguratu zuten.

Agerraldian, Rafaela Romero Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako diputatua pozik agertu zen proiektua gauzatzeko egon den erakundeen arteko lankidetzarengatik, eta bi udalek erakutsitako prestutasuna eskertu zuen.

Zati berriak kilometro inguruko luzera du, Urbil merkataritza gunetik Txikierdira eta 386.785,17 euroko inbertsioa izan du. Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako diputatuak azaldu modura, hiriguneen artean oinez eta bizikletaz mugitzeko lotura seguru honek bi herrietako eskaerei erantzuten die.

Horren bitartez, Gipuzkoako sarean bidegorri eremuak gehitzeaz gain, Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako sailak gizarte jasangarritasunaren alde egindako apustua islatzen dela nabamendu zuen Romerok: "Gure bidegorrien eta garraio publiko zerbitzuen bidez Gipuzkoan mugikortasun jasangarria sustatzen ari gara. Eta lanean jarraituko dugu herritarren eskaerei erantzuteko eta gizarte modernoak dakartzan erronkei aurre egiteko behar dugun eredua sustatzeko".

Foru Aldundiko eta udaletako arduradunak aurkezpenean. TXINTXARRI

Udalak pozarren

Agustin Valdivia alkatea pozarren agertu zen Lasarte-Oriaren bidegorri sareak lotura berri bat duelako eta bi herrien arteko mugikortasuna iraunkorra sustatzearen garrantzia azpimarratu zuen. Era berean, azaldu zuen, bai Usurbilgo Udalak baita Lasarte-Oriako Udalak ere etorkizunean Michelin eremuan egingo dituzten garapen industrialeko lanek guztiz batuko dutela bidea; bien bitartean, Usurbilgo Udalak egun dagoen espaloian txirringa eta oinezkoentzako bidea markatzeko konpromisoa hartu duela azaldu zuen.

Agurtzane Solabarrieta Usurbilgo alkatea ere pozik zegoen bidegorriaren zati hau erabilgarri delako. Hala ere, Romerori gogoratu dio Txikierdiraino bakarrik doala bidea eta Usurbilgo erdiguneak oraindik motorduna ez den loturarik ez duela: "Gipuzkoako bidegorrien sareko zati garrantzitsua dago egiteko. Gu jabetzen gara trazatu zaila dela". Horregatik, erakundeen arteko elkarlanarekin jarraiki, proiektua aurrera eramateko mahai bat sortzea eskatu dio diputatuari.

Lasarte-Orian 70 kutsatze baieztatu dituzte azken astean

Eusko Jaurlaritzak iragarri du osasun larrialdia berrezarriko duela; baimena lortuta, COVID agiria eskatuko dute EAEn

Txintxarri

Koronabirusaren intzidentzia gora doa astez aste Euskal Autonomia Erkidegoan, batez ere, Gipuzkoan: 100.000 biztanleko 966,33 kutsatu dira, batez beste, azken hamalau egunetan. Adierazle hori ere oso altua da Beterri-Buruntza eskualdean (batez beste, 1.140,91), baina ez horrenbeste Lasarte-Orian: abenduaren 1ean, 598,58 –horiek izan dira TXINTXARRI-k kontsultatu ahal izan dituen azken datuak, edizioa itxi aurretik–. Beste bost herrietakoak, hauek: 1.748,07 Andoainen, 1.018,88 Astigarragan, 1.376,47 Hernanin, 692,54 Urnietan eta 1.410,91 Usurbilen.

Osakidetzak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak astean bitan eguneratzen dituzte COVID-19aren bilakaerari eta eraginari buruzko datuak. Horien arabera, gure herrian 70 kutsatze baieztatu dituzte azken zazpi egunetan, eta azken hamalauetan, 114. Bukatu berri den azaroan 159 positibo diagnostikatu dituzte, eguneko 5,3. Aurtengo abuztukoen (160) eta uztaileko kasuen parekoa (189) da, baina iazko azarokoetatik urrun samar (275). Azken hori izan da, gaur-gaurkoz, intzidentzia gehieneko hilabetea Lasarte-Orian.

Esan bezala, EAEko intzidentzia tasa metatuak igotzen jarraitzen du: 577,17 da, batez beste, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Osakidetzako ospitaleetan 207 pertsona daude oheratuta; horietatik 55ek sintoma larriak dituzte, eta Zainketa Intentsiboetako Unitateetan daude ingresatuta.

COVID agiria eta murrizketak

Pandemia gainditutzat jo eta ia bi hilabetera, osasun larrialdia eta LABI batzordea bezalako kontzeptuak berriro aipatu dituzte agintariek. Eusko Jaurlaritzak iragarri du egoera hori berrezarriko duela (ziur asko, hilaren 3an); horrek neurri murriztaileak ekarriko ditu, adituen mahaian eseriko direnek erabakiko dituztenak. Oso litekeena da bilera hori ere hilaren 3an egitea. Zer iragarriko dute? Ikusteke dago, baina itxiera orduei eta edukierei eragingo diela zabaldu dute hainbat hedabidek. Edonola ere, alarma egoera indargabetuta dagoenez, etxeratzeko agindurik edo itxiera perimetralik ezin dezake ezarri Lakuak.

Bestalde, Espainiako Auzitegi Nagusiak baimena eman dio Eusko Jaurlaritzari ezaugarri jakin batzuk dituzten establezimenduetan COVID ziurtagiria eskatzeko: diskoteka, dantzaleku, karaoke eta antzerako gaueko aisialdiko lokaletan; III. kategoria duten pub eta tabernetan; eta 50 pertsona baino gehiago har ditzaketen jatetxeetan, hain justu. Iñigo Urkullu lehendakariak berriki iragarri duenez, beste gune batzuetan eskatzeko aukera aztertzen ari da Jaurlaritza. Agiri hori eskatzeaz establezimenduetako langileek arduratu beharko dute, ziurrenik, hilaren 4tik aurrera, larunbatarekin.

Beterri-Buruntza balioan jarri du eskualdeko EH Bilduk

Buruntzaldeako udalek mankomunitatearen estatutuak onartu dituzte, eta urtarrilean eratuko dute erakundea

Txintxarri

Eskualdeko EH Bilduko udal taldeen aburuz, "garapen sozialaren eta ekonomikoaren arloetan jarduteko tresna eraginkorra" izango da Beterri-Buruntza Mankomunitatea. Estatutuak behin betiko onartuta, 2022ko urtarrilean eratuko da. "Beti izan dugu jomugan egitura iraunkor bat sortzea, eskualdeak dituen erronkei modu bateratu, indartsu eta proaktiboan erantzuteko".

Azpimarratu dute "apustu garbia" egin dutela azken hamar urteetan "eskualdeko garapen sozial eta ekonomikoaren aldeko akordio eta ekimenak" bideratzeko. "Aurrerantzean, are eta ahalegin handiagoa egingo dugu Beterri-Buruntza mankomunitatean. Herri handi zein txiki, elkarren beharra dugu bakarka landu ezin ditugun esparruak elkarrekin jorratzeko. Ekosistema sozial eta ekonomiko aberatsa dugu, erronka handiak dituena: trantsizio energetikoa eta enplegu inklusiboa, adibidez".

Eskualdeko EH Bilduko ordezkariak, Jon Martin herritarra tartean. GIPUZKOAKO EH BILDU

Bonuen kanpainan parte har dezakete herritarrek

Kontsumo kanpaina abiatu du, bigarrengoz, udalak. Abenduaren 27ra arte izango dute herritarrek txartelak eskuratzeko aukera, eta urtarrilaren 31 izango da horiek erabiltzeko azken eguna. Atari digital baten bidez lortuko dituzte aurten bonoak

Txintxarri

Herriko merkatari, zerbitzu pertsonal eta ostalariei pandemiak eragindako kaltea arindu asmoz, kontsumo bonuen kanpaina abiatu zuen iragan urtean udalak. Aurten, bigarrengoz martxan jartzeko erabaki hartu du. Astearte eguerdian, azaroaren 30ean egin dute egitasmoaren aurkezpena Agustin Valdivia alkateak eta Soziekonomia batzordeburu Nuria Fernandezek.

Iazkoarekin alderatuz, ezberdintasuna izango da aurtengoan; euskarri digital baten bidez eskuratuko dira bonuak. *www.lasarteoriabonoak.eus* ataria prestatu dute horretarako, eta erabilgarri dago dagoeneko. Bertara sartu eta lehenengo pausoa bezeroaren erregistroa egitea izango da (horretarako beharrezkoa izango da gutxienez hamasei urte izatea eta Lasarte-Orian erroldatua egotea). Behin hori amaituta, kanpainarekin bat egin duten establezimenduen zerrenda agertuko zaio erosleari. Horrela, bonua erabili nahi duen saltokia aukeratu beharko du, eta ordainketa egin ostean, txartela sortuko zaio. Hori erabiltzeko bi aukera izango dituzte; inprimatuta edo mugikorraren bitartez erakutsita. Hala, bonuen eskaera modu digitalean egiteko aukerarik ez duten herritarrek, Mirentxura joateko aukera izango dute; bertako langileek lagunduko diete haiek erosten. 10 euroko balioa izango dute, baina 5 euroren truke erosi ahalko dituzte herritarrek. Alde hori (kanpainaren kostuaren erdia), udalak hartuko du bere gain. Orotara 400.000 euroko "dirumugimendua" sortuko da herriko merkataritza, zerbitzu eta ostalaritzan. Horretarako 200.000 euro bideratuko ditu udalak kanpainara eta beste erdia, herritarrek erositako bonuen diruarekin osatuko da.

Sozioekonomia batzordeburu Nuria Fernandez eta Agustin Valdivia alkatea. TXINTXARRI

Abenduaren 1etik 27ra edukiko dute bonoak erosteko aukera kanpainan parte hartu nahi duten herritarrek, eta urtarrilaren 31a izango da horiek erabiltzeko azken eguna. Aurtengo ekimenak, Gabonetako kanpainarekin bat egin du, ez da kasualitatea izan, ordea. Udaleko ordezkariek jakinarazi dute herriko hainbat merkatarirekin hitz egin ostean erabaki dutela data horietan egitea. Arrazoi nagusia hau da; lasarteoriatarrak Eguberrietako erosketan herrian egitea. Guztira, 79 establezimendu (42 merkatari, 14 ostalari eta 23 zerbitzu) batu dira kanpainara.

NEURE KABUZ

ASIER ODRIOZOLA

Euskararen eguna

Edozeren eguna jasotzen du urteko egutegi zabalak edo zabal zirudienak, nazioarteko horrenbeste "ospakizunekin" lepo bete baitute. Badira xelebre iruditzen zaizkigun egunak: komunarena esate baterako. Eta horrekin eta beste askorekin lehian-edo, euskararen eguna. Pentsa liteke zerrenda horretan egotea aldeko dela baina sakonean begiratuz gero begi bistakoa da laguntza, bultzada edo arreta beharrean dauden eremu, gaixo, pertsona, giza talde, erakunde edo iharduerak direla hor daudenak. Seinale txarra, alegia.

Euskararen presentzia beraz, kezkarako bide dugu. Errezeloa daukat dena kontra zuenean, erabiltzeko debekua zegoenean alegia, nolabaiteko erresistentzia natural bat egon izan zela sakonean, oso gurea zen eta den lanabes eta harribitxia hiltzen ez uztearena. Joan dira harrez geroko urteak eta euskararen "defentsa" ofizialdu egin da, erakundeek hartu dute ardura hori, dela gobernuek edo eta hezkuntza bezalako eremuek. Eta oso ona izan da hori, noski, baina irudipena dut erakundeen esku egotearekin batera gure buruetan halako urruntze bat egon dela, guri ez dagokigun egitekoa bailitz. Horrek hala dirauen bitartean jai dugu. Militantziaren garaiak joanak diren honetan, arlo batzuetan hobe genuke jarrera hori berreskuratu, egunerokoan, ohiko jardueratan, hizkuntza, komunikaziorik arruntenerako giltzarria denean, euskararen aldeko apustua egitea. Hori gabe, alferrikakoak izango dira inbertsio, azpiegitura, kanpaina eta bestelakoak. Hori guztiaren habitat naturala hiztunok gara eta ardura dugu, handia gainera.

Gainerakoan badakigu zein izango den euskararen etorkizuna: latinaren pare, hizkuntza zoragarri bezain baztertu bihurtzea. Erabakitzearen eremuan ondo esaten den bezala, GURE ESKU DAGO, eta hemen ere erabaki kontua da, bestearen aldean guk geuk hartu dezakeguna eta inolako araurik urratu gabe gainera.

Jostailu bilketa solidarioa deitu dute

Abenduaren 13tik 17ra egingo du Lasarte-Oriako PSE-EEk "jostailu bilketa solidario tradizionala". Ekarpena egin nahi duten herritarrek alderdi sozialistaren egoitzara (Ganbo kalea, 1) eraman behar dituzte jostailuak, 17:00etatik 20:00etara. Bost egunez egingo dute bilketa; abenduaren 13tik 17ra.

Partehartzea sustatzeko, bizikleta bat zozkatuko dute. Jostailua uzten duen pertsona bakoitzari txartel bat emango diote. Zenbaki saritua, abenduaren 22an Gabonetako Sari Nagusiaren azken bi zifrekin bat datorren txartela izango da.

TTAKUNEK KULTUR DINAMIZATZAILEA BEHAR DU

Kultur programak edota jendartea dinamizatzeko proiektuak kudeatzea izango dira bere zeregin nagusiak, besteak beste, Euskaraldia eta Euskararen Maratoia.

• **Ezinbestekoa:**
- Euskara ondo menperatzea ahoz eta idatziz.
- Kultur egitasmoen kudeaketan eskarmentua.
- Soziolinguistikako ezagutzak izatea.
- Gidabaimena

• **Zeregin nagusiak:**
- Euskaraldiaren dinamizazioa: herri batzordearen eta boluntarioen lana koordinatu, koordinazio orokorreko mintegi eta bileretan parte hartu.
- Herriko kultur jarduerak antolatu eta dinamizatu.
- Herriko eragileekin elkarlana bultzatu.
- Ekimenen aurrekontua kudeatu.

Interesa izanez gero bidali curriculuma ***ttakun@ttakun.eus*** *edo Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, helbideetara,*
Abenduaren 12a baino lehen.

Ttakun Kultur Ekartea

Azaro osoan zehar jaso duena eskertu du

Lasarte-Oriako Bizikidetza Foroak ekitaldi xume batekin itxi du 'Bizikidetzarako memoria' erakusketa, eta eskerrak eman dizkio herriari: "Oso pozik gaude, izan ere, 500 bisitari baino gehiago etorri dira". Astelehenetako proiekzioak "arrakastatsuak" izan direla azpimarratu du

Iñigo Gonzalez Sarobe

Ekitaldi xume baina hunkigarri bat egin, eta *Bizikidetzarako memoria* erakusketa itxi du Lasarte-Oriako Bizikidetza Foroak Antonio Mercero gunean, esposizioaren sukaldean, dozenaka herritarrekin batera. Kolore ugaritako krabelinak hartu dituzte partaideek, herrian bizi diren pertsonen aniztasuna irudikatzeko, eta lorontzi batean jarri, txistuen doinupean. "Oso pozik" daudela azpimarratu dute taldeko kideek, "espero baino ikusle gehiago" bertaratu direlako erakusketara, 500dik gora: "Interes handia erakutsi dute herritarrek, eta ongi baloratu dute guk egindako lana. Gehienek ez zekiten zer aurkituko zuten, baina badakigu ez direla hotz gelditu".

Hiru espaziotan banatutako esposizioa atontzeaz gain, azaroko lau astelehenetan proiekzioak egin ditu bizikidetza foroak, pairatutako indarkeria kasuei buruzko testigantzak eman dituzten 23 herritarrei egindako elkarrizketetan oinarrituta. Emanaldi horiek "arrakastatsuak" izan direla nabarmendu du, eta protagonisten mezuak "errespetuz eta arreta handiz" entzun dituztela saioetara bertaratu direnek. Lekukotzak partekatu dituzten lasarteoriatarrei eskerrak eman dizkie foroak: "Zuen egiari ahotsa jarri izanak horiek zuzenean ezagutzea ahalbidetu digu, eta aurreiritziak alboratzea ere bai".

Dozenaka lasarteoriatar bertaratu dira itxiera ekitaldira. TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Udalari begirunea adierazi diote "uneoro emandako laguntza ekonomiko, logistiko eta praktikoagatik", baita tokiko hedabideei ere, proiektua zabaltzerakoan "oso lagungarriak" izan direlako.

"Memoriarekin bizitzeko bidean"

Erakusketaren helburu nagusiak errepasatu dituzte foroko kideek. "Inoiz gertatu behar ez zenaren ikuspegi grafikoa eskaini nahi izan diogu herriari. Gure lana entzutea, ezagutzea, ikusaraztea eta, ahal izan dugun neurrian, erreparatzea izan da, bi helbururekin: ez ahaztea eta ez errepikatzea".

Bestalde, foroak *Ixabelen sukaldea* dokumentala emango du hilaren 10ean, kultur etxean, 19:00etan. Sarrera doakoa da, baina gonbidapena eskatu behar da leihatilan.

Tere Beloki kazetariak Txanpi Baztarrika eta Kike Intxausti elkarrizketatu ditu. TXINTXARRI

'Bizikidetzarako memoria', irratian

Euskadi Irratiko *Baipasa* saioak, Tokikom tokiko hedabideen bateragunearekin elkarlanean, tarte bat ematen die euskarazko herri hedabideei asteartero. Egiten duten lana erakusteaz gain, komunikabideek aukera dute lantzen ari diren gai bat hautatu eta protagonistei hitza emateko. TXINTXARRI-ren txanda izan zen azaroaren 30ean, eta Lasarte-Oriako Bizikidetza Foroaren *Bizikidetzarako* memoria erakusketaz jardutea proposatu zien irratsaiokoei. Iradokizuna onartu, eta Tere Beloki kazetariak zuzenean elkarrizketatu zituen foroko partaide Txanpi Baztarrika eta Kike Intxausti, Antonio Mercero gunean.

Memoriaz eta giza eskubideen urraketez hitz egin dute

"Sentsibilitate desberdinekoen" arteko distantzia laburtzeko urratsak egin behar direla esan du Lasarte-Oriako Sarek

Txintxarri

Euripean egin dute beste behin bidea Sarek deitutako Azken Ostirala ekintzan parte hartu duten herritarrek. Plazara iristean, aterkipean edo udaletxearen arkupean babes hartuta entzun dituzte Ixiar Arteagaren hitzak. Sarek eta Etxeraten adostutako idatzia irakurri beharrean, memoriaren inguruko gogoeta egin du.

Azaroaren 10ean ospatutako Memoriaren Egunari lotuta, aitortza, erreparazioa eta giza eskubideen urraketarekin amaitzeko "bide bat egiteko" dagoela adierazi du, baita "sentsibilitate ezberdinekoen artean dagoen distantziari dagokionean" ere. Hori esanda, distantzia laburtzeko ahalegin horretan Lasarte-Oriako Bizikidetzarako Herritarren Batzordeak egindako lana nabarmendu nahi izan du, zehazki, azaroaren 30a arte Antonio Mercero aretoan ikusgai egon den erakusketa eta hari lotuta antolatutako hitzaldi sorta. "Balioan jartzekoa" iruditzen zaio, "gutxienean, interesgarria eta aipagarria", memoria ariketa egiteko aukera ematen baitu, herrian gertatutakoak "gogoratzeko eta ikusteko". Egiteko asko bada ere, elkar entzuteko "ariketa interesgarria" iruditu zaie alde guztietako sufrimenduari leku egiten saiatu direlako eta "hor izan delako gure ahotsa".

Euripean egin dute herritarrek azaroko Azken Ostirala ekintzako ibilbidea. TXINTXARRI

Pili Kastresanaren txanda izan da orduan, esandakoa berresteko. Senide bezala herrian gertatutako gauza asko ikusteko aukera izatea "oso inportantea" dela uste du. Beraien eta herritar askoren ahotsak entzuteak duen balioa azpimarratu du ere. "Gure kasuan, Mikel azaltzen da, beste pertsona bat bezala, maila berean; eta hori guretzat oso garrantzitsua da". Bildutakoan informazio asko dagoela azaldu du, "jende asko harritu egingo litzateke", eta egin ez dutenei ikustea aholkatu die.

Batzordearen lana aitortzeaz gain, kalean jarraitzeko arrazoiak ere gogora ekarri dituzte, beste behin. Bi mezu zabaldu dituzte. Kartzela politika arduradunei, "utzi gaixo dauden presoen bizitzarekin jolasteari"; eta baita elkarbizitzan eta bakean aurrera egiteko salbuespen neurriak eten eta espetxerako bidean hildako hamasei senideen aitortu behar direla.

Zozketa eta lehiaketa bereziak, urteko sasoi berezi batean

Eguberrietako kanpaina aurkeztu du Aterpea elkarteak: produktu sortak zozkatu, eta erakusleiho txapelketa egingo du

Abreu bazarrean aurkeztu dute aurtengo Gabonetako kanpaina. TXINTXARRI

Txintxarri

Gabonak ate joka daude, eta urteko sasoi berezi horretarako zozketa eta txapelketa berezi bana prestatu ditu Aterpea merkatari, ostalari eta zerbitzu enpresen elkarteak. Lasarte-Oriako Udala, Rural Kutxa, Biyak Bat egoitza eta Amaia Gonzalez Caballero dantzariaren laguntza izan du. Eguberrietako kanpaina "urteko politena" dela azpimarratu dute Aterpeako kideek. Abreu bazarrean egin dute prentsa agerraldia; laster itxiko ditu ateak denda horrek, hilaren 31n.

Egitasmo horren barruan bi ekimen aurrera eramango dituzte. Batetik, Gabonetako produktuz osatutako otarren zozketak. Hilaren 31n izango dute bezeroek parte hartzeko azken aukera. Kanpainarekin bat egin duten 46 dendetan egin beharko dituzte erosketak; trukean, saria irabazi ahal izateko txartel bat jasoko dute. Ia 50 komertzio horietako bakoitzak sorta bat banatuko du erosleen artean.

Bestetik, erakusleiho dotoreena aukeratzeko txapelketa egingo dute, hilaren 13tik 18ra. Aterpeak zehaztu duenez, hogei denda animatu dira parte hartzera. Bi sari emango dituzte: profesionala da horietako bat, Rural Kutxak babestua eta epaimahai batek erabakiko duena; eta bestea, popularra, Lasarte-Oriako Udalak babestua eta herritarrek erabakiko dutena.

Bozketa, Internet bidez

Azken sari horren boza emateko modua "erabat" aldatu du merkatarien elkarteak: Internet eta sare sozialen bidez egingo dute oso-osorik. Lasarteoriatarrek gustukoen duten erakusleihoari argazki bat atera, eta Facebook edo Instagramera igo beharko dute. "Erabiltzailearen profilak irekia izan behar du; pribatua bada, Aterpeak ezingo ditu irudia eta partaidearen datuak jaso".

Argazki gehienetan azaltzen den komertzioaren erakusleihoak irabaziko du txapelketa, Aterpeak zehaztu duenez. Sari banaketa ekitaldia hilaren 20ko astean egingo dute udaletxeko batzar aretoan, baina oraindik ez dute erabaki zein egun eta ordutan.

Merkatarien elkarteko ordezkariak ez ezik, Agustin Valdivia alkatea eta Sozioekonomia batzordeburu Nuria Fernandez bertaratu dira prentsaurrekora. Azken horrek eskerrak eman dizkio Aterpeari, "tokiko merkataritza sustatzeko egitasmoak" sortzen eta egiten jarraitzeagatik. Eguberrietako kanpainari buruz, esan du laguntzen duela herritarren ilusioa eta erosteko gogoa pizten eta Lasarte-Oria argitzen; bizilagun guztiak gonbidatu ditu produktu sorten zozketan zein erakusleihoen txapelketan parte hartzera.

Biyak Bat egoitzak ez du San Tomas eguna ohi bezala ospatuko

Ohar bidez, Biyak Bat adinekoen egoitzak jakinarazi du moldatu egin duela aurtengo San Tomas eguna (hilak 21, asteartea) ospatzeko modua. Hilaren 9tik 17a, bi egunak barne, bazkideek bulegora joan beharko dute, eta txartel bat eskatu, tabernan aurkezteko eta txistorra pintxo bat eta ardoa edo freskagarria eskatzeko. "Pandemiagatik, ezingo dugu egun berezi hori ohi eta nahi bezala ospatu".

Bestalde, zuzendaritzak gogoratu du bazkideek izena eman dezaketela *Urratsez urrats. Pandemiaren ondoren bideari ekiten* egitasmoko tailerretan. Hilaren 13an, 14an eta 15ean alor soziala jorratuko dute, hiru saioren bidez: 17:00etatik 19:00etara egingo dituzte, egoitzan bertan. Parte hartu nahi dutenek bulegora joan beharko dute, edo 625 02 36 96 telefono zenbakira deitu. Proiektuak adineko pertsonen osasun sozial eta emozionala hobetzea du helburu.

Urtebetetze festa opari, herrikidei

Hiru hamarkada ez dira egunero urratzen eta haiek osatzea gogoz ospatzeko arrazoia da. Jalgune elkarteak familiekin eta bidaide dituen eragileekin egin du larunbateko jaialdian. Igarotakoan eta etorriko denean begirada jarri dute Manuel Lekuona kultur etxean

2020ko inauterietarako prestatutako emanaldiarekin hasi zuten jaialdia. TXINTXARRI

Txintxarri

30 urte dira Jalgunek bere ibilbidea hasi zuenetik. 1991. urtean izan zen eta garai hartan asko entzun zen Chimo Bayo DJaren *Exta-sí, exta-no* kanta aukeratu dute hasierako une haien isla gisa. Aldaketa ekarri zuten biek eta hasieran ez ziren denen gustuko izan. Ordutik, ordea, bide luzea egin dute eta egoera oso bestelakoa da orain. Elkarteari dagokionean, nahikoa da larunbat arratsaldean kultur etxea bete zutenen kopuruari erreparatzea. Edo bideoan zorionak opa zieten guztien zerrenda luzea irakurtzea. Horrexegatik, hazia ereiten lagundu dieten horiekin guztiekin eta familiekin ospatu zuten urtemuga biribila.

Auditorioko bi solairuak beteta zeuden arratsaldeko 18:00etan jaialdia hasi zutenean, hilaren 27an. Festetan musika, dantza eta umore ona ezin dira falta, eta horietatik ugari ekarri zuten Jalguneko kideek albo banatan globoekin apaindutako agertokira. Hasteko, azken inauterietan Okendo plazan erakutsi zuten emanaldia berreskuratu zuten. Orduko hartan, 1992ko Bartzelonako Olinpiar Jokoak hartu zituzten ardatz, pandemiaren aurretik olinpikoa izan behar baitzuen urte hark. Kirolariak, lastagia, arkularia, Cobi, Los Manolos, Montserrat Caballe... Protagonista ia denak bueltan ekarri zituzten.

Lehen dantzen ondoren, beste asko etorri ziren. Aurrez aurre edo pantailan. Ez barre egin izenburuarekin bildutako bideoetan oinak mugitzen duten abilezia ere erakutsi zuten, baina bereziki, umorerako duten trebezia. Txiste eta sketch laburren bildumak, halabeharrez, eragin zien barrea bertaratutakoei.

Bidelagunei aitortza

Ordu eta erdiz luzatu zen ekitaldiaren ekuadorrera bidean, urte guztiotan bidaide izan ditzuten elkarte, erakunde eta norbanakoen agurrekin josita bideoaren txanda izan zen. Zorionak opa eta kandelei putz egin zieten hamaika eragilek. Guztiak zerrendatuta agertu ziren amaieran, eta ondoren, aitortza bueltan jaso zuten guztiek. Lehenik, Jalguneren izenean esker hitzak esan zizkieten elkarteko lehendakari Pili Bermejok eta Edorta Hornillosek. Ondoren, banan bana izendatu zituzten guztiak eta oholtzara igo ziren bertan zeuden ordezkariak. Opari bana jaso, eta talde argazkia egin zuten guztiek elkarrekin. Kamera eta sakelakoen klikak amaituta, emozioak baretzeko eta indarberritzeko, hamar minutuko atsedenaldia egin zuten.

Hasieran bezain gogotsu ekin zioten Jalguneko lagunek bigarren zatiari. Edozein estilotan ausartzen direnez, Semblante Andaluz elkarteko taldeek eta Semblante Rociero koruak lagunduta, sevillanak dantzatu zituzten. Gero, umoreari beste tarte bat egin zioten, bestelako doinu eta erritmotan dantzan eta kantan jarraitu aurretik.

Amaitzeko, urteotan egindako hamaika jarduera biltzen zituen ikus-entzunezkoa proiektatu, eta datozen urteetarako desio bat eskatu zuten. Baita urteak betetzearen gauza garrantzitsuenetako bat uneak partekatzen jarraitzea dela gogoratu ere.

Jaialdian zehar, askotariko estiloetan abestera ausartu ziren Jalguneko kideak. TXINTXARRI

Semblante Andaluz elkarteko kideekin sevillanak dantzatu zituzten. TXINTXARRI

Hogeita hamar urteotan alboan izan dituzten eragileei eskerrak eta opari bana eman zieten. TXINTXARRI

Jalguneko kide Edorta Hornillos eta elkarteko presidente Pili Bermejo. TXINTXARRI

TTAKUNek eta JALGUNEk ZUEKIN OSPATU NAHI DUTE

ABENDUAK 3

Euskararen Eguna + Aniztasun Funtzionalaren Eguna

Ttakun Kultur Elkarteak eta Jalgune elkarteak ekimen berezi bat jarri dute martxan euren 30. urteurrenak ospatzeko asmoz. Gaur, Euskararen Nazioarteko Eguna izateaz gain, Aniztasun Funtzionalarena ere bada, eta aitzakia hori baliatu nahi izan dute herritarrekin ospatzeko. Hainbat sari banatu nahi dituzte lasarteoriatarren artean, eta horretarako laguntzaileak ere izan dituzte. Ore Amak, 250 txokolatezko muffin prestatu ditu eta abenduaren 9an eta 10ean banatuko ditu obradorean bertan. Gozokia eskuratzeko, behean duzuen txarteltxoa moztu eta bertan aurkeztu beharko da.

Bestalde, Aterpeak, 100 euroko bi sari zozkatuko ditu, elkarteko bazkide diren establezimenduetan gastatzeko. Zozketan parte hartzeko, beheko txartela bete, eta ondorengo komertzio hauetako batean entregatu beharko da, abenduaren 12a baino lehen: MABEL MODA; CALZADOS LEDER; LOTERÍA IZAGUERRI+C; MERCERÍA MAUXA; ZAPATERÍA ITURBE, VENTANAS ALCAR, FERRETERÍA SUKOA, OLA ENMARCACIÓN; URRUZOLA MERTZERIA; NOGUES MODA; ALBA MODA; PELUQUERÍA DE CABALLEROS ANA; MERCERÍA ARITZA; PELUQUERÍA MARIAN OLAIZOLA; PELUQUERÍA MARBELL; CAFÉ-BAR BUENETXEA; BAR ALAI; DECO 75 TEXTIL HOGAR ; ELECTRICIDAD ARREGUI; ORMAZABAL LORADENDA; MULTIÓPTICAS LASARTE; OIHANA ESTETIKA; BIDEO LAGUNAK; OLMI MERTZERIA; ORIA TXIKI TABERNA, DULCE TENTACION; JOSEMA BURDINDENDA; MAYA MERTZERIA eta TTAKUN KULTUR ELKARTEAN

OPARI
URTEURRENAK OSPATZEKO

ORE AMA

Beko kale, 8
LASARTE-ORIA

250 TXOLATEZKO MUFFIN BANATUKO DITUGU
(ABENDUAREN 9AN ETA 10EAN)

MOZTU TXARTEL HAU ETA ABENDUAREN 9AN ETA 10EAN ORE AMATIK PASA ZAITEZ MUFFIN BAT ESKURATZEKO (pertsonako bakarra banatuko da)

ZOZKETA
URTEURRENAK OSPATZEKO

aterpea

100€-KO 2 SARI ZOZKATUKO DITUGU

(ATERPEAKO DENDETAN EROSTEKO)

IZEN-ABIZENAK

TELEFONOA

MOZTU TXARTEL HAU ETA ATERPEA DENDETAN EDO TTAKUNEKO BULEGOKO BUZOIAN SAR EZAZU. ABENDUAREN 12A BAINO LEHEN (pertsona bakoitzeko txartel bakarra)

Hizkuntzen eta txorien balioa lotu ditu 'Kuikui'-k

Aiora Zulaikak eta Mertxe Rodriguezek aurkeztu dute Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen lan berria. Jalgi kafe antzokian egindako agerraldian ezin izan dute Miren Amuriza idazleak, Xabier Zabala musikariak eta Joxe Mari Agirretxek parte hartu

Txintxarri

Euskara, maitasuna eta balioak ardatz hartuta, Pirritx, Porrotx eta Marimotots hirukoteak hamarkadak daramatza inguruko arazoetatik abiatuta lanketak egiten. Aurtengo proiektuak *Kuikui* izena du, txorien kantuei eta herrien hizkuntzei buruzkoa; ipuin disko eta ikuskizun batek osatua. Hura aurkezteko agerraldia azaroaren 27an egin zuten Jalgi kafe antzokian, tamalez, zenbait hutsune esanguratsu izan ziren: Porrotx, ipuina idatzi duen Miren Amuriza eta musikaz arduratu den Xabier Zabalak ezin izan zuten bertaratu.

Abiapuntu gisa, euskarak eta euskal kulturak inguruko beste hizkuntza eta kulturekin duten harremanaz hitz egiteko nahia adierazi zioten pailazoek Amurizari. Bertsolari eta idazleak txoriak aukeratu zituen kontakizuna hezurmamitzeko. Izan ere, kuikui zozoaren txorrotxioa da, beste hegazti batzuek eurena duten moduan, eta horren bidez, guztiek "amalurra eta bioaniztasuna aberasteko" duten garrantzia islatu dute kontakizunean.

Amurizaren hitzak marrazkiz laguntzeko ardura Irrimarrak izan du. Bertako Karmele Goroñok proiektuak "ilusio handia" egin ziela aitortu du, baita, aldi berean, erronka ere izan dela, oso irudi ezagunak direlako. Amurizak txori bakoitzari soinu edo hitz bat eman bezala, bakoitzak bere forma, koloreak eta hegan egiteko modua ditu; elkarrekin nahastu arren, istorio osoan hori mantentzen ahalegindu dira. Orrietatik harago ere joan dira ilustratzaileak. Izan ere, liburuko irudietan oinarrituta, animazio bat ere sortu baitute.

Zulaika, Rodriguez, Goroño eta Aranzadiko bi kide aurkezpenean. TXINTXARRI

Ohi bezala, diskoa eta ikuskizuna ere prestatu dituzte. Diskoak hamabi kanta ditu, *Kuikui* da berri bakarra lau moldaketak dira, eta gainerakoak, errepertoriokoak. Kanta bakoitzaren aurrean ipuintxo bat dago. Ikuskizunak, berriz, zenbait txoriren istorioren bidez planeta eta biodibertsitatea ardatz ditu. Saioen amaieran herrietan euskararen alde dabiltzan eragile, elkarte eta bestelakoak omenduko dituzte habia-kutxa bana oparituta. Aranzadiren Txoribox zientzia proiektuan oinarritzen da ideia hori, besteak beste, txorien habia-kutxak herrietako parkeetan zintzilikatzean datza.

Ekitaldiaren amaieran talde argazkia egin zuten udal arduradunekin. TXINTXARRI

Literatur lehiaketetako irabazleek euren saria jaso dute

Aurtengo luma onenak aintzatetsi dituzte kultur etxean egindako sari banaketan, gehienak bertan izan dira gehienak

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak antolatutako 35. Literatur Lehiaketak eta 34. Haur eta Gazteen Literatur Lehiaketak badituzte irabazleak. Azaroaren 27an Manuel Lekuona kultur etxean egindako ekitaldian jaso zuen idazle bakoitzak egindako lanari aitortza. Gehienak bertan izan ziren, aurten bai, senideek lagunduta.

Agustin Valdivia alkateak eta Kultura eta Hezkuntza batzordeburu Maite Iglesiasek banatu zituzten sariak. Agurrean, Miguel Hernandezen poema bat irakurri zuen alkateak eta eskerrak eman zizkien lehiaketako partaideei hark bezala "ahotsa altxa" izanagatik. Poesiarekin jarraituz, kategoria horretan gailendu diren Rochi Novoa Vazquezen *Seis verdades* eta Lierni Rekondo Villaronen *Gorpuztutako latzikaren orografia* poemak irakurri zituen Ainhoa Aiertzak, Musika Eskolako piano ikasle Unax Goenagak lagunduta.

Jarraian, Iglesiasek hartu zuen hitza. Gloria Fuertesen poema bat irakurri zuen, bidea helmuga bezain garrantzitsua dela gogorarazten duena, eta gogoeta egin zuen presaka ibiltzeak Literaturari bere tokia kentzen diola ondorioztatuz. Horregatik, eskerrak eman zizkien ordenagailu edo paper zuriaren aurrean eserita, Literaturari galdutako tarte bat emateagatik. Aurten aurkeztutako lanen kopurua hazi egin da, "hala-nolako normaltasunera" bueltatuz. Haur kategorian, orotara, 132 lan jaso dituzte, eta helduenean, euskaraz, hamar mikrokontakizun eta lau poema; eta gaztelaniaz, berriz, 86 poema eta 116 mikrokontakizun.

Atal bakoitzeko irabazle zerrenda *www.txintxarri.eus* webgunean ikus daiteke.

Indarkeria matxista arbuiatu dute, jarduera anitzen bitartez

Azaroaren 25aren harira antolatutako askotariko jardueretan parte hartu dute lasarteoriatarrek

Txintxarri

Modu askotara arbuiatu dute lasarteoriatarrek indarkeria matxista. Azaroaren 25aren harira, jarduera ugari antolatu dituzte, eta horietan parte hartu dute herritar ugarik.

Azaroaren 22an zabaldu zituen atean Mugarik gabe gobernuz kanpoko erakundearen erakusketak. 25ean, eguerdian, elkarretaratzea egin zuten Okendo plazan udalak deituta, eta, arratsaldean, berriz, eskualde mailako mobilizazioa egin zuten herrian barrena.

Hilaren 26an Detritus Teatrus taldeak *Levántate y mea de pie* lana taularatu zuen kultur etxean, eta abenduaren lehenean, Kontukantoiren ipuin kontaketa saioarekin gozatu ahal izan dute herritarrek.

Azaroaren 29rako aurreikusita zegoen liburu aurkezpena dataz aldatu dute. Abenduaren 15ean etorriko da Samara Velte kazetari eta EHUko doktorea *Nik sinesten dizut* liburua aurkeztera.

Detritus Teatrus taldeak 'Levántate y mea de pie' taularatu du. TXINTXARRI

eskatu eskaini EUSKARAZ

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza eta Politika Sailburuordetzak sustatutako kanpaina da *Betikoa, gertukoa*; merkataritzan eta ostalaritzan euskara sustatzeko egitasmoa da. Euskal Autonomia Erkidegoko udalei luzatu die bat egiteko gonbita, eta baietz esan du Lasarte-Oriako Udalak. Martxan dago honezkero, eta abenduaren 31ra arte iraungo du. Pixkanaka, herriko dendariak eta ostalariak egitasmoarekin bat egiten ari dira.

Arkupe taberna

Pintxo, errazio, edari eta bestelakoak euskaraz eskaintzen saiatzeko bat egin dute *Betikoa, gertukoa* kanpainarekin Arkupe tabernako lagunek. Jenni Garcia jabeak TXINTXARRI-ri azaldu dionez, behin baino gehiagotan gertatu zaie bezeroek euskaraz jakin, baina hasieratik gaztelaniaz aritzea. "Gero konturatzen dira, beste pertsona batekin euskaraz hitz egiten duzula entzuten dutenean". Taberna kanpoan zein barruan kartel ugari jarri ditu, herritarrek jakin dezaten posible dela euskaraz eskatzea. "Ea ikusten dituzten". Arkupetik kanpo, herriko dendetan lehen hitza hizkuntza horretan egiten saiatzen da Garcia.

Salazar Profesional

Bezeroaren eta merkatariaren artean euskararen erabilera bultzatzeko erabaki du Iñaki Gonzalez-ek *Betikoa, gertuko*a egitasmoarekin bat egitea. 2.000. urtean hartu zuen komertzioarekiko ardura, eta bezeroei arreta euskaraz emateko asmoz hasi da berriz ere hizkuntza ikasten. Ziur da erosleekin praktikatzeak ere lagunduko diola horretan. Arreta euskaraz emateak balio erantsia duela iritzi du: "Badaude arreta euskaraz jaso nahi duten bezeroak, eta dendariarekin hizkuntza horretan harremantzea asko eskertzen dute".

Quantum Escape Room

"Guk sortu, guk egin, herrikoekin batera eta gure hizkuntzan, euskaraz". Hori da Quantum Escape Roomaren filosofia, Alex Zubizarretak azaldu duenez. "Euskaraz joka dezakete bezeroek, webgunea eta eskuorriak hizkuntza horretan ditugu, lehen hitza euskaraz egiten dugu, langileak kontratatzerakoan ezinbesteko baldintza da euskaraz hitz egiten jakitea...". Zubizarretarentzat "zaindu beharreko ondarea" da: "Guk, hemengook egiten ez badugu, nork egingo du?". Kontatu du erakarri izan dituela bezeroak jokoak euskaraz eskaintzeagatik: "Berako [Nafarroa] familia bat gugana etorri zen behin, haurrekin euskaraz egin nahi zutelako *escape room* jokoa; inguruan ez zuten horrelako beste establezimendurik topatu".

Goxogi denda

Euskararekin eta oro har euskal kulturarekin duen konpromisoagatik bat egin du Goxogiko jabe Joxerra San Sebastianek kanpainarekin. Hala, euskararen erabilera sustatzeko helburuz. Konturatu da, jende askok hizkuntza jakin arren ez duela erabiltzen, eta bera euskaraz zuzentzeak laguntzen duela erabileran: "Bezeroa apur bat behartzea ere ondo dago; euskaraz jakin baina erabiltzen ez dutenei hizkuntza horretan zuzentzen natzaienean animatzen dira euskaraz jarraitzera". Negozioa martxan jarri zuenetik izan du argi arreta euskaraz ere eskaini behar zuela.

Merkatariren batek kanpainarekin bat egin nahi badu, Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzuarekin jarri behar du harremanetan, telefono hauetako batera deituta: **943-37 61 84** edo **646 79 78 30**.

Ostadar SKT B taldeko jokalaria Texas Lasartearra-ko jokalariaren presiotik ihes egin nahian. TXINTXARRI

Gol ugari, infantil mailan

Lehen itzuliko azken jardunaldian, Texas Lasartearra eta Ostadar SKT B taldeen arteko derbian, zuri-urdinak izan dira garaile, 11-0; Ostadar SKT A taldeak, berriz, 9-0 irabazi dio Euskaldunari. Texas Lasartearrak Txapeldunen fasea du buruan

Txintxarri

Eguraldi zakarra izan da azaroaren 27-28ko asteburuan Michelin kirol gunean jokatu duten taldeentzat. Hainbat partidatan euriaz gain, kazkabarraren kolpeak ere jasan dituzte. Baina eguraldia alde batera utzita Ostadar SKT eta Texas Lasartearra futbol taldeen arteko bi derbi jokatu ziren bata kadete mailan eta bestea infantil mailan. Biak irabazi zituen talde zuri-urdinak eta gol festa izan zen bietan; kadeteak 4-1, eta infantilak 11-0 gailendu ziren. Derbikoak ez ziren azpimarratzeko emaitza bakarrak izan, Ostadar SKTko infantil mailako A taldeak 9-0 irabazi baitzion Euskaldunari.

Texas Lasartearra eta Ostadar SKT B taldeen arteko infantil mailako derbia, azaroaren 28an, izan zen.

Partida hasieratik Texas Lasartearra izan zen nagusi. Talde zuri-urdineko entrenatzaile Yonatan Monroyren hitzetan, intentsitate gutxiko partida izan zen. "Guk Ostadarren eremuan jokatu genuen partida osoan. Ostadarri kosta egiten zitzaion bere eremutik ateratzea, beraz, ez zuen aukerarik sortu".

Bi taldeetako prestatzaileek onartu dute partida hasi baino lehen zuri-urdinak garaile izatea espero zutela. Ostadarreko Jon Agirrek aipatu duenez, "aurreikusten genuen beraiek nagusi izatea; Texas Lasartearra sailkapenean hobeto dago eta; baina ez genuen horrelako emaitzarik espero".

"Lehen zati ona egin du taldeak eta ederki borrokatu dute jokalariek. Bigarren zatian, berriz, nekea nabaritu dute eta Texas ongi baliatu da egoeraz", azaldu du talde urdin-beltzeko prestatzaileak.

Hala ere, emaitzatik haratago Ostadar taldeko entrenatzaileak jokalariek egindako lanarekin pozik dagoela nabarmendu du.

A taldeak garaipena

Ostadarreko infantil A taldeak, berriz, emaitza aldeko izan zuen. Andoaingo Euskalduna-ren aurka jokatu zuen, azaroaren 27an eta Javi Fraile taldeko arduradunak aurreikusi bezala, talde urdin-beltza 9-0 nagusitu zen. "Sailkapena ikusita irabazteko partida zen. Ez genuen emaitza hori espero. Gainera, egiten zuen eguraldia ikusita edozer gerta zitekeen," aipatu du.

EGURALDI ZAKARRARI AURRE EGINEZ JOKATU ZITUZTEN FUTBOL PARTIDAK

Partida garbia izan zela nabarmendu du: "Guztia ongi joan zen. Ez zen faltarik egon. Eta bestelako arazorik ere ez genuen izan, lesioak, etab".

Gainera, atsedenaldira 5-0 iritsi zirenez, bigarren zatian gutxien jokatzen duten jokalariei aukera emateko baliatu zuela aipatu du entrenatzaileak. "Normalean errotazioak egiten ditugu, baina era horretan ere, badago jokalaririk besteak baino gutxiago jokatzen duena. Horregatik emaitza ikusita, jokalari horiei minutuak eman nizkien".

Txapeldunen fasea

I. Infantil mailako 6. multzoan ari dira Ostadar SKTko zein Texas Lasartearra elkarteko taldeak lehian.

Lehen itzuliko azken jardunaldia izan zen azaroaren 27-28an jokatutakoa eta zubiaren ostean, bigarrenari emango diote hasiera.

Lehen fase hau amaitzean, sailkapenaren arabera, Txapeldunen fasea edo Gipuzkoako Kopa jokatuko dute herriko taldeek.

Txapeldunen fasea multzo bakoitzeko lehen eta bigarren sailkatuez gain, hirugarren postuan dauden lau talderik hoberenak jokatuko dute.

Egun Texas Lasartearra da azken talde horietako bat. Monroy entrenatzaileak azaldu duenez, "orain hirugarren gaude. Baina helburua bigarren itzulian puntuak lortu eta amaitzean bigarren postuan egotea da. Ez dugu inoren menpe egon nahi".

Lehia handia iragartzen du egun bigarren postuan den Usurbil Udarregi A taldearekin. Hemendik bi jardunaldira bi taldeak aurrez aurre izango dira eta partida hori irabaztea garrantzitsua izango dela adierazi du, baita irabaziz gero derbian lortutako golek balio handia izango dutela ere.

Xedea lortzeko jokalariengan uste osoa du Texas Lasartearrako prestatzaileak. "Jokalariak gogotsu daude eta ongi ari dira lanean".

Ikastea eta gozatzea xede

Ostadar SKTko taldeen kasuan, A taldea laugarren postuan da; B taldea, berriz, zortzigarrenean. Sailkapen hori kontuan izanik Koparako sailkatuko lirateke.

Jon Agirre B taldeko prestatzaileak azaldu modura, "gure helburua infantil mailan ez da sailkapenean lehen postuetan egotea. Jokalariek partidak jokatu nahi izatea, jokatzean gozatzea, eta lan saioetan ikastea da guk nahi duguna".

A taldeko arduradun Javi Fraile ere bat dator horrekin. "Jokalari guztiak pozik daude eta ni ere egiten ari diren lanarekin. Hurrengo partidetan eta saioetan gehiago ikastea da orain helburua".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Ostadar SKT - Amaikak Bat
Larunbata. 12:00. Michelin kirol gunean.

GORENGOEN MAILA

Ostadar SKT - Getariako Keta Babyauto
Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO JUBENIL MAILA

Beasain S.D. - Ostadar SKT
Larunbata. 12:00. Loinaz, Beasain.

JUBENILEN 1. MAILA

Amara Berri KE A - Ostadar SKT A
Larunbata. 19:30. Martutene, Donostian.
Ostadar SKT B - Urnieta KE B
Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO KADETE MAILA

Ordizia KE - Ostadar SKT
Larunbata. 12:30. Altamira, Ordizian.

KADETEEN 1. MAILA

Zarautz KE C - Ostadar SKT A
Igandea. 11:00. Asti-Txiki, Zarautzen.

Ostadar SKT B - Zarautz KE A
Larunbata. 10:00. Michelin kirol gunean.
Mundaiz SCD - Texas Lasartearra CF
Larunbata. 12:00. Martutene, Donostian.

PILOTA

NAGUSIAK 3. MAILA - BIKOTEKA

Intza KE - LAPKE 2
Larunbata. 16:15 (2. partida). Michelin pil.

JUBENILAK 2. MAILA - BANAKA

Lagunak - Intza KE
Ostirala. 18:30. Elgoibarko ikastola.

KADETEAK 2. MAILA - BANAKA

Intza KE - Zumaia
Larunbata. 16:15 (1. partida). Michelin pil.

LASTERKETAK

VALENTZIAKO MARATOIA

Hainbat herritarrek Valentziako Maratoian parte hartuko dute.
Igandea. 08:15. Valentzian.

Intzako nagusien bikotea, finaletik pauso batera

Tartaloetxe garaitu ostean, LAPKE izango du aurkari Gipuzkoako Binakako Txapelketako finalerdian. Partida gogorra aurreikusten du Intzako bikoteak. Jubenil eta kadete mailako pilotariek, berriz, ez dute zorterik izan ez banaka, ezta bikoteka ere

Txintxarri

Intza Kirol Elkarteko Nagusien 3. Mailako bikoteak Gipuzkoako Txapelketako finalerdirako sailkapena lortu zuen, azaroaren 27an, Loidi-Barren pilotalekuan jokatutako partidan.

Haritz Urkia-k pairatutako osasun arazo bat zela eta, aurrelaria zein partidaren ordua eta kokalekua aldatu behar izan zuen Intza KEk azken orduan. Eguraldia goibela zen arren, Jon Pello Artetxe-k eta Mikel Elola-k Intzako kideen eguna alaitu zuten euren garaipenarekin, 22-7. Nagusien bikoteak partida ona jokatu zuen. Artetxe aurrean fin ibili zen tantoak egiten eta Elolak ere ziur jokatu zuen atzealdean.

Intzako kideen ustez, pilotaleku aldaketak eragin handia izan zuen azken emaitzan. Eta abenduaren 4an, LAPKEren aurkako finalerdia etxean jokatzea abantaila izatea espero dute. Hala ere, partida zaila iragarri dute. "Gure antzera, LAPKEko bikoteak ez dute partidarik galdu lehen fasean. Beraz, finalerako sailkapena borrokatu beharko dugu".

Nagusien bikotea, lehen faseko partida lehiatzen. TXINTXARRI

Ezin lehian jarraitu

Bestalde, 2. Mailako jubenil eta kadete bikoteak lehiatik at geratu dira. Lehen faseko azken jardunaldia jokatu zuten, Michelin kirol guneko pilotalekuan. Jubenilek partida zailari aurre egin behar izan zioten; sailkapeneko burua izan baitzuten aurrez aurre, Azkoitia. Eta aurreikusi modura, aurkaria nagusitasunez gailendu zen, 2-22. Beñat Olazabal eta Xuban Urdalleta kadeteek, aldiz, partida gorabeheratsua jokatu zuten eta egoera ongi baliatu zuen EPLEk 10-22 irabazteko.

Banakako txapelketan, nahiz eta pilotariek partida onak jokatu, ez zen berri onik izan. Jubenil mailan, Haritza Diaz de Gereñuk 1-22 galdu zuen Murumendiko Leundaren aurka. "Zorte txarra izan du: bere multzoan urtebete zaharragoak diren pilotariak suertatu zaizkio. Partidak borrokatzen ditu, piloteoa luzatzen du baina tanto gutxi irabazten ditu", aipatu du Intzako arduradun Jose Felix Solanok.

Kadete mailan ere, Beñat Olazabalek partida borrokatua jokatu zuen. Tamalez, aurkaria 18-7 gailendu zen. "Tanto gehiago merezi zituen", nabarmendu du Solanok.

TXINTXARRI

Gabonetako txapelketarik ez

"Asko sentitzen dugu; aurten ere ezingo dugu antolatu". Hitz horiekin Eguzki Areto Futbol elkarteak jakitera eman du aurten ere ez duela Gabonetako Areto Futbol Txapelketarik antolatuko. "Pena handiz", aurten lehiaketa antolatzeari uko egingo diola eta hurrengo urtera arte itxarongo duela ere aipatzen du Eguzkik bere sare sozialetan. Era berean, kirol elkarteko kideek Udal Kirol Zerbitzuari eskerrak eman dizkiote ekimena aurrera eramateko izan duen prestutasunarengatik.

Imaz eta Zudaire igerilariak Castellon lehiatuko dira

Buruntzaldea IKTko Nora Imaz eta Nahia Zudaire igerilari gazteak Castalia Castello Nazioarteko Sarian lehiatuko dira Castelló hiriburuan, abenduaren 3tik 6ra.

Imazek Gipuzkoako selekzioaren deia jaso du lehiaketan parte hartzeko; estilo libreko lau probatan egingo du igeria: 200 m., 400 m., 800 m. eta 1.500 m. probetan. Neguko txapelketa nagusiak prestatzen ari da igerilari gaztea eta bere garapena aztertzeko lehia egokia izango dela uste du Borja Apeztegia entrenatzaileak.

Zudairek, berriz, bi proba (100 m. librean eta 100 m. tximeleta) jokatuko ditu eta 2022an Funchalen (Portugal) izango den Igeriketa Egokituko Munduko Txapelketarako gutxienekoak egitea du helburu.

Aintzane Sarobe taldekidea ere Gipuzkoako Selekzioaren deialdian dagoen arren, ezingo da txapelketara joan.

Carbayeda, Etxeberria eta Altunak, amateur mailara jauzia

Carbayeda eta Etxeberria Caja Rural-Seguros RGA taldean lehiatuko dira; Altuna, berriz, Eibar Txirrindulari taldean

Txintxarri

Txirrindulari taldeek euren fitxaketa berriak ezagutzera eman dituzte azken asteetan. Amateur mailako taldeetan ere kide berri ugari aurkeztu dituzte eta horietako bi herritarrak izan dira: Beñat Carbayeda eta Ander Altuna. Bestalde, Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako kide Haimar Etxeberria irundarra ere maila berean lehiatuko da.

Caja Rural-Seguros RGA taldeak Beñat Carbayeda herritarra afizionatu taldeko fitxaketa berria zela jakitera eman zuen azaroaren 21ean. Nafarroako taldean ez da bakarrik egongo, ordea. Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolan kide zuen Haimar Etxeberria ere han egongo baita.

Biak 23 urtez azpiko mailan lehiatuko dira eta dagoeneko taldearekin ari dira lanean. Azaroaren 20an, bere taldekide eta Pro mailako txirrindulariekin batu ziren eta topaketa ederra egin zuten Iruñea aldean.

Ez dira taldean dauden herritar bakarrak izango. Gogoratu behar da amateurren talde teknikoan Iñigo Altuna ere badagoela.

Eibarrera bidean

Ander Altuna herritarra Eibar Txirrindularitza taldean ariko baita 2021-20211 denboraldian. Viveros San Anton taldean egon da orain arte gaztea eta Eibarko taldean Asier Pozo herritarrarekin egingo du bat. Carbayeda eta Etxeberriaren antzera 23 urtez azpiko mailan lehiatuko da.

Ziklo-kros denboraldia

Dagoeneko Eibarko taldearekin jokatu du lehen proba ziklo-kros modalitatean, Abadiñoko Udala Saria. Azaroaren 28an, Bizkaiko herri horretan egindako proban Elite eta UCI Pro Team taldeetako txirrindularien aurka aritu zen nor baino nor lasarteoriatarra. Irabazlea, ordea, Astana taldeko Gorka Izagirre izan zen eta Altunak garaileak baino itzuli bat gutxiago egin zuen; proba 26. postuan amaitu zuen.

Carbayeda, Etxeberria eta Altuna, podiumetan. MARTIN EARLY/GIPUZKOAKO TX. ELKARTEA

Bestalde, Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako Eneko Aranguren juniorra Lezama, Beasain eta Garaiko probetan parte hartu du eta lehen hogeien artean sailkatu da.

Infantilek, esperientzia eskuratzeko partida

Ostadar Saskibaloia saileko Infantil Partaidetza taldeak Andraitz izan du aurrez aurre. Urdin-beltzek ederki egin dute lan; Legazpiko taldea izan da garaile, ordea. Bestalde, saskibaloi atalak 3x3 txapelketa antolatuko du, abenduaren 26an

Txintxarri

Ostadar Saskibaloia ataleko Infantil Partaidetza taldeak partida gogorra jokatu zuen, azaroaren 27an. Andraitz izan zuen aurrez aurre eta aurkaria gailendu zen.

Urdin-beltzek partida nagiki hasi zuten eta egoeraz baliatu zen Legazpiko taldea 11 puntu sartzeko; Ostadarrek hiru besterik ez zituen lortu.

Bigarren laurdenean, ordea, bi taldeak oso paretsu aritu ziren. Biek defentsa ona egin zuten eta etxekoek bi jaurtiketa libre huts egin ostean, 4-4ko partzialarekin iritsi ziren atsedenaldira.

Andraitzek ez zuen amore eman eta defentsa zorroztu zuen kantxara itzultzean; erasoan ere fin ibili zen. Ondorioz, partziala 4-11koa izan zen. Azken laurdenean, Ostadarreko jokalariek partidari itzulia emateko lan egin zuten. Baina Legazpiko jokalariak ez zeuden prest partida galtzeko eta azkenera arte borrokatu zuten. Azken partziala 8-4koa izan zen etxekoen alde.

Porrota jaso arren, taldeko arduradunek uste dute esperientzia entrenatzeko eta gogo handiagoz ahalegintzeko erabilgarria egingo zaiela.

Ostadar Saskibaloia taldeko infantilak, defentsa lanetan. TXINTXARRI

Era berean, Ostadar Saskibaloia sailak VIII. 3x3 txapelketa antolatuko duela jakitera eman du. Dena ondo bidean, saskibaloiaren zaletuek maila ezberdineteko 3x3ko partidez gozatzeko aukera izango dute Maialen Chourraut kiroldegian, hilaren 26an.

3x3 lehiaren itzulera

Lehiaketan senior mailatik –2003 urtetik gorako jokalariak– benjamin mailarako –2012. eta 2013. urteetan jaiotako gaztetxoak– taldeek parte hartu ahalko dute eta hiruko taldeak, gehienez lau jokalarikoak izango dira.

Emakumeen zein gizonen lehia izango da eta antolatzaileek jakitera eman dutenez, izena ematen duten talde mistoek gizonezkoen txapelketan lehiatuko dira.

COVID-19aren aurkako neurriei dagokienez, egoera aldakor honetan, parte hartzaileek distantziak gorde eta jokatzen ez den bitartean maskara jantzita izan beharko dutela aurreratu dute antolatzaileek. Gainerako azalpenak egunean bertan emango dizkiete taldeei.

Hilaren 23ra arte izango dute izena ematea egiteko aukera Ostadarren webgunean zein sare sozialetan. Informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, Saileko arduradun Endika Marrahirekin harremanetan jarri behar dute, 677 16 37 51 telefono zenbakira deituta.

Donostiako Maratoian, eguraldiari aurre eginez

Hamar kilometroko proban ere izan dira herritarrak. Ostadar Atletismo sailak proben denboraldiari ekin dio

Txintxarri

Lasarte-Oriako hainbat herritarrek eguraldi kaskarrari aurre egin eta azaroaren 28an, Donostiako Maratoian zein 10 kilometrotako proban lehiatu ziren. 40 kilometrotako proba nagusian, bost herritarrek igaro zuten helmuga: Jon Huici (02.59.22), Asier Mendizabal (03.14.22), Mikel Zaldua (03.24.47), Peio Fadrique (04.05.07), Garikoitz Urruzmendi (04.14.47). Mendizabal Lasarte-Oria Trail elkartekoa da, eta Fadrique, Trinko triatloikoa. Talde horretako kide da Adrian Garcia urnietarra, eta bera ere aritu zen, 02.55.48ko denbora eginda.

Gehiago izan ziren proba motza egitera animatu zirenak, hamabi korrikalari. Horietan azkarrena, Jon Presa izan zen 33 minutu eta bederatzi segundo behar izan zituen ibilbidea egiteko. Gainerako herritarrak eta euren denborak hauen izan ziren: Aimar Sukunza, 35.57; Julen Ormazabal, 36:13; Borja Granado, 39:29; Pablo Alonso, 41:55; Jorge Villaverde, 42:47; Oskar Martinez, 42:50; Idoya Rekondo, 49:18; Igor Lopez, 49:18; Alex Ramos, 50:24; Juan Andres Vega, 51:55 eta Naia Hernantes, 58:09.

Artxanda eta bazkide kanpaina

Donostiako probez gain, Lasarte-Oria Trail taldeko bi kidek Artxandako Urban Trail lehiaketako hamabi kilometroko proban parte hartu zuten. Bilboko Artxanda auzoan zehar egiten den proba horretan Aitor Morenok (01.22.30) eta Ainara Blancok (01.22.31) kluben sailkapeneko laugarren postua eskuratu zuten.

Bestalde, Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteak urteroko bazkide kanpaina hasi du. Martxoaren 1era arte izango du irekia taldean federatzeko aukera. Informazio guztia *lasarteoriatrail.com* orrialdean jarri dute eskuragarri.

Federatuak, pozik

Era berean, Ostadar Atletismoa saileko atletak markak ontzeko baliagarri diren proba libreetan lehiatzen hasi dira. Azaroaren 13an egin zuten lehena, Eibarren.

Taldeko zazpi kirolari izan ziren topaketan eta horietako bostek lehen aldiz federatu modura parte hartu zuela jakitera eman dute saileko arduradunek. Horiek Aitor Surutusa, Oinatz Almagro, June Garcia, Nora Manzanal eta Aiala Ramos dira. Luzera jauziko proban egin zuten debuta, kadete mailan.

Gainerako biak Oihana Igarriz eta Peru Goikoetxea izan ziren, eta xabalina jaurtiketa proban izan ziren lehian. Markei dagokionez, Igarrizek lortutako 28,22 metroko jaurtiketa nabarmendu dute taldeko arduradunek.

Aurtengo denboraldia ilusioz hasi dute Ostadar Atletismoa taldeko kideek. 30 federatu dituzte eta lan ederra egitea espero dute. Donostiako Antonio Elorza Belodromoan izango dute pista estaliko lehen hitzordua, hilaren 12an.

Denboraldiko lehen garaipena etxean lortu dute kadeteek

Ostadar Boleibola saileko gazte taldeak partida borrokatua jokatu du Lizardi BAT taldearen aurka

Txintxarri

Ostadar Boleibola saileko kadeteek badakite zer den lehiaketa ofizialean garaipena lortzea. Irekiera txapelketako bosgarren jardunaldian izan da. Asko sufritu arren, Lizardi Boleibol Taldeari 3-0 irabazi zion talde urdin-beltzak, azaroaren 27an, Maialen Chourraut kiroldegian jokatu zen neurketan.

Lehen jokaldietan dagoeneko ikusi zen bi taldeen arteko lehia handia izango zela. Ostadarrek, ordea, tartea ireki zuen eta 25-17 gailendu zen lehen setean.

Bigarren eta hirugarren setean, berriz, larriago ibili zen etxeko taldea. Aurkariak ederki borrokatu zituen tantoak eta urdin-beltzek asko izerditu behar izan zuten garaipena lortzeko. 26-24 eta 25-23 irabazi zuten, hurrenez hurren.

Kadete taldea aurten sortu da. Azaroaren 27koa txapelketa horretan jokatu duen bosgarren partida izan zen; orain arte ez zuen garaipenik erdietsi.

Kadeteen partidako irudia. TXINTXARRI

Gainerako taldeei dagokionez, jubenilek hitzordu bikoitza izan zuten, azaroaren 27an. Zegokien jardunaldiko partida jokatu zuten goizean, Hernani KEren aurka; arratsaldean, berriz, urriaren 23ko asteburuko norgehiagoka: Fortuna-Ostadar. Bietan aurkaria izan zen garaile –3-0 eta 3-1, hurrenez hurren–.

Ligetako hurrengo jardunaldiak abenduko bigarren asteburuan izango direnez, boleibol saileko taldeek indarrak berreskuratu eta hurrengo neurketak garrantzitsuak prestatzeko tartea izango dute.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK

Pau
Zorionak txapeldun!!
Eta muxu handi bat etxekoen partez.

SUDOKUA

	7	6	8		2			9
8	3			4	7	2	6	
		2			6	4	8	
7		5			8		4	6
	6	8			4	9	7	
	2		6	7	3	8	5	
6		3	7			5		4
1			4	8		6		3
2			3	6				8

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 3	GANDARIAS-URIBE
LARUNBATA, 4	URBISTONDO
IGANDEA, 5	URBISTONDO
ASTELEHENA, 6	URBISTONDO
ASTEARTEA, 7	DE MIGUEL
AZTEAZKENA, 8	DE ORUE
OSTEGUNA, 9	LASA
OSTIRALA, 10	GIL
LARUNBATA, 11	GANDARIAS-URIBE
IGANDEA, 12	GANDARIAS-URIBE
ASTELEHENA, 13	ACHA-ORBEA
ASTEARTEA, 14	URBISTONDO
AZTEAZKENA, 15	ACHA-ORBEA
OSTEGUNA, 16	DE ORUE

EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00
A. Etxebarria, 'Cuevas':
Andrea kalea 48, Hernani.
943-55 17 93

URTE OSOKO GUARDIAK **APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen**
Informazio gehiago *www.cofgipuzkoa.com* webgunean eskuragarri.

OHARRA

Udala eta Liburutegia zubian itxita

Konstituzioaren zubia dela-eta, udaletxea jendaurrerako itxita egongo da datorren asteartean, hilaren 7an. Horrela eman du aditzera, udalak, ohar baten bidez.

Era berean, jakinarazi du udal liburutegia abenduaren 4tik 8ra bitarte egongo dela itxita, biak barne.

Heriotzen berri eman

Ingurukoren baten heriotzaren berri txintxarri aldizkarian

Heriotzak atalean eman nahi baduzu, bidali zendutako pertsonaren, izen-abizenak eta heriotza data *txintxarri@ttakun.eus* helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

txintxarri
Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz

Hurrengo Txintxarri paperean ***abenduaren 17an*** *argitaratuko dugu.*
GABONETAKO BEREZIA

IBON
FERNANDEZ IRADI

CENTRO PÉNITENTIAIRE
LANNEMEZAN

Rue des Saligues, BP70166
65307 Lannemezan Cedex
(France)

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Marina D'Or urbanizazioko (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukatuko genuke. Harremanetarako zenbakia: 675 70 39 06

LANA

ESKAINTZA

Klase partikularrak emateko pertsona behar da. DBH mailan. interesatua bazaude jarri harremanetan *irakasle@yahoo.com* bidez.

ESKARIA

Adineko pertsonak zainduko nituzke. Zaintza ikastaroa egina dut. Interno edo orduka lan egingo nuke. Harremanetarako zenbakia: 676 18 84 11.

Lan bila nabil. Interno moduan edo orduka lan egingo nuke. Harremanetarako zenbakia: 663 49 98 41.

Garbiketa lanak egingo nituzke, edota pertsona adinduak zaindu. Berehala lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia: 643 23 92 51

Etxeko lanak egiteko edo haurrak zein adinekoak zaintzeko prest nago, goizetan, 10:00etatik 12:00etara. Harremanetarako zenbakia: 671 27 79 05.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia: 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitaletan gauak egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 634 27 81 98.

Ikasturtean zehar haurrak zainduko nituzke, eskolara sartu aurretik. Harremanetarako zenbakia: 630 68 27 16.

SALEROSKETA

SALDU

Paseorako bi txirrinda saltzen ditut, ehun eurotan biak. Harremanetarako zenbakia: 670 60 74 95.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia.
12 €
(BEZ barne)
publizitatea@
ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646.824466

ESKELA

ESKELA

Felixiano Eizmendi Goenaga

-Goian bego-

2021eko azaroaren 29an hil zen,
89 urte zituela.

Besarkada handi bat familiari

Ttakun Kultur Elkartea

ESKELAK JARTZEKO: 646 82 44 66 edo PUBLIZITATEA@TTAKUN.EUS

- ▶ Hileta egunean eskela Txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean: 80€

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Nerea Segura, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak: Unai Bardaji, Lide Hidalgo, Nahia Fabian, Julene Iraola, Egoitz Epelde, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

TXINTXARRI-k ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA

LASARTE-ORIA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

LASARTE-ORIA URTEURREN OSPAKIZUNA. Ttakun Kultur Elkarteak eta Jalgune elkarteak ekimen berezi bat jarri dute martxan euren 30. urteurrenak ospatzeko asmoz. Gaur, Euskararen Nazioarteko Eguna izateaz gain, Aniztasun Funtzionalarena ere bada, eta aitzakia hori baliatu nahi izan dute herritarrekin ospatzeko. Hainbat sari banatuko dituzte lasarteoriatarren artean, eta horretarako laguntzaileak ere izan dituzte. Ore Amak, 250 txokolatezko muffin prestatu ditu eta abenduaren 9an eta 10ean banatuko dituzte obradorean. Bestalde, Aterpeak, 100 euroko bi sari zozkatuko ditu, elkarteko bazkide diren establezimenduetan gastatzeko.

Hilaren 9an eta 10ean muffinak banatuko ditu Ore Amak eta Aterpearen zozketan parte hartzeko abenduaren 12a baino lehen entregatu behar dira txartelak (Ikus zazpigarren orrialdea).

OSTIRALA 3

LASARTE-ORIA Zinema
Martin Eden filma proiektatuko du Okendo Zinema Taldeak. Sarrerek 5,50 euro balio dute.
Kultur etxea, 20:30ean.

OSTIRALA 10

LASARTE-ORIA Dokumentala
Lasarte-Oriako Bizikidetza Taldeak *Ixabelen sukaldea* dokumentala proiektatuko du. Sarrera doakoa izango da.
Kultur etxea, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Erakusketa
Akrilikoak I. Perales Virberri eraskusketa ikustera joateko aukera izango dute herritarrek. Abenduaren 19ra arte egongo da zabalik.
Antonio Mercero gunea. Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 21:00era, eta larunbat zein igandetan, 11:30etik 14:00etara.

LARUNBATA 11

LASARTE-ORIA Antzerkia
Gorakada antzerki taldeak *Zuhaitzak landatzen zituen gizona* lana taularatuko du. Familia antzerkia da eta sarrerek 3,80 euro balio dute.
Kultur etxea, 17:00etan.

IGANDEA 12

LASARTE-ORIA Zinema
Ron da error filma proiektatuko dute. Sarrerek 3,80 euro balio dute.
Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema
Un espiritu burlón filma proiektatuko dute. Sarrerek 5,50 euro balio dute.
Kultur etxea, 19:30ean.

ASTEAZKENA 15

LASARTE-ORIA Opera
Vincenzzo Bellini-ren *Norma* opera digitala ikusteko aukera izango dute herritarrek. Sarrerek 7,5 eta 9 euro artean balio dute.
Kultur etxea, 19:00etan.

OSTEGUNA 16

LASARTE-ORIA Zinema
La ruleta de la fortuna y la fantasía filma proiektatuko du Okendo Zinema Taldeak. Sarrerek 5,50 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan eskuratu daitezke.
Kultur etxea, 20:30ean.

OSTIRALA 17

LASARTE-ORIA Kirol gala
Lasarte-Oriako Udalak 2021eko kirol merezimenduen sariak banatuko ditu.
Kultur etxea, 19:00etan.

LARUNBATA 18

LASARTE-ORIA Atzerkia
ATX antzerki taldeak *Lubaki lainotsua* zituen gizona lana taularatuko du. Helduentzako antzerkia da eta sarrerek 5,50 euro balio dute.
Kultur etxea, 20:00etan.

IGANDEA 19

LASARTE-ORIA Kontzertua
Zero Sette akordeoi taldeak *Gabonetako Doinuak* kontzertua eskainiko du. Sarrera doakoa izango da.
Kultur etxea, 12:30ean.

LASARTE-ORIA Zinema
Una familia feliz filma proiektatuko dute. Sarrerek 3,80 euro balio dute.
Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema
Way down filma proiektatuko dute. Sarrerek 5,50 euro balio dute.
Kultur etxea, 19:30ean.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

'Martin Eden'
Ostirala 3
20:30.

ANDOAIN

BASTERO

'Way Down'
Larunbata 4
19:30, 22:00.
Igandea 5
19:30.
Astelehena 6
19:30.
Astelehena 7
19:30.

'Salvar el 'arbol'
Igandea 5
17:00.
Astelehena 6
17:00.

USURBIL

URBIL

'Cazafantasmas'
Ostirala 3
15:50, 16:50, 18:45, 19:45 21:40.
Larunbata 4
12:30, 15:50, 16:50, 18:45, 19:45 21:40.
Igandea 5
12:30, 15:50, 16:50, 18:45, 19:45 21:40.

'Clifford, el gran perro rojo'
Ostirala 3
15:45,18:10, 19:40.
Larunbata 4
12:30, 15:45,18:10, 19:40.
Igandea 5
12:30, 15:45,18:10, 19:40.

'Encanto'
Ostirala 3
15:50,17:00, 18:25.
Larunbata 4
12:30, 15:50,17:00, 18:25.
Igandea 5
12:30, 15:50,17:00, 18:25.

'Eternals'
Ostirala 3
21:50.
Larunbata 4
21:50.
Igandea 5
21:50.

'La casa Gucci'
Ostirala 3
16:05, 18:20, 21:05.
Larunbata 4
16:05, 18:20, 21:05.
Igandea 5
16:05, 18:20, 21:05.

'La familia perfecta'
Ostirala 3
15:45, 19:35, 22:15.
Larunbata 4
12:00, 15:45, 19:35, 22:15.
Igandea 5
12:00, 15:45, 19:35, 22:15.

'Matrix'
Ostirala 3
20:40.
Larunbata 4
12:00, 20:40.
Igandea 5
12:00, 20:40.

'Última noche en el Soho'
Ostirala 3
21:55.
Larunbata 4
21:55.
Igandea 5
21:55.

LABURPENA

'Martin Edén'
Zuzendaria: Pietro Marcello. **Gidoia:** Maurizio Braucci, Prieto Marcello. **Argazkia:** Alessandro Abate, Francesco Di Giacomo. **Musika:** Marco Messina, Sacha Ricci. **Ekoizleak:** Coproducción Italia-Alemania-Francia; L'Avventura Film B.V, IBC Movie, The Match Factory, RAI Cinema, Shellac Sud. **Herr.:** Italia (2019). **Iraupena:** 129 minutu. **Generoa:** Drama, erromantzea.

Elenarekin maitemindutako marinela

Martin Eden herriko mutil xumea da eta marinel gisa lan egiten du. Halako batean, Martinek eraso batetik defendatu du Arturo goi-mailako gaztea. Esker onez, Martinek etxera gonbidatu du eta pixkanaka bere bizimoduan sartu du. Horrela, gazteak hezkuntzaren abantailak ezagutzen ditu, eta hori aurrera egiteko eta izan nahi duen idazle bihurtzeko aukera gisa ikusi du, luxuen arteko denbora ahalik eta gehien aprobetxatzen duen bitartean. Martinek ustekabeko bultzada bat jasoko du Elena ezagutzen duenean, Arturoren ahizpa, harekin maiteminduko baita berehala.

ahatekinak
ehizak eta hegaztiak
bakailao gezatua
onddoak
marinatuak
olagarroa

aldika productos selectos

Industrialdea 19-20 LASARTE-ORIA • Tel.: 943-37 70 89
aldika@aldika.com • www.aldika.com

Aurreratu zure eskariak
telefonoz edo emailez



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

TicketBAI
Etorkizunerako prestatzen.

2022an, **TicketBAI** Gipuzkoara iritsiko da. Etorkizunerako prestatzen gaituen online fakturazio-sistema berria.

Anima zaitez zure enpresan edo negozioan borondatezko epean ezartzera eta ezagutu kenkariak eta abantailak.

Informa zaitez

gipuzkoa.eus/ticketbai
Aurrez aurreko informazioa (hitzordua)
943 113 000
ticketbaikontsultak@gipuzkoa.eus

TicketBAI
GIPUZKOAN | EN GIPUZKOA
gipuzkoa.eus/ticketbai